



Arrazoa:	Legazpi Bai! Ekimena kudeatuko duen taldearen bilera	Akta zk.	11
Eguna:	2011ko urtarrilak 10ean	Lekua:	Udaletxea
Parte hartu dute:			
NAGUSILAN (Mari Jose Cantero) Emilio Garde ILINTI (Mailo Pinillos)		BUZTINTEGI (Glori Mtez. De Guereñu) Arantxa Arizmendi Javier Iraeta	
Eguneko gaiak:			
1. OP-ACT proiektuaren barnean Toliko Akzio Planean garatuko diren lan esparruak eta proiektuak definitzea			

BILERAN JASOTAKOA

1 TOKIKO AKZIO PLANA GARATZEKO PROIEKTUAK

Aurreko bilera batean erabaki zen Legazpi BAI! lantzeko esparrurik interesgarrienak honako hauek zirela:

- LE1: Gobernantza eta narratiba berriak
- LE2: Gizarteratzea
- LE3: Hazkunde ekonomikoa

TAPean garatzeko proiektuen ideia lortzeko 15 eguneko gogoeta epea pasa ondoren, lan taldeak honako lan esparruak edota proiektuak proposatu ditu:

- **Arte eta Kultura sektoreak sustatzea**, herriarentzako aberastasuna sortzeko aukerak bilatuaz. Zehazki aberastasun ekonomikoa sortuko dituen gaitasunak hausnartzea.
- **Herriaren imajina** edo irudia
- Lanerako pertsonen **eskaera eta hezkuntza zentroen eskaintza lotzea**
- Lan esparru berri bat agertzen da LE4 urbanizazioa eta “zaindutako guneei” buruz lan egiteko Legazpiarron bizi baldintzak hobetzeko asmoz.

Legazpiko elkarteei bidalitako galdekizunetatik 3 jaso dira eta hauek dira emaitzak:

- Lehenengo inkesta: LE2 eta LE5 aipatzen ditu baina ez du zergatiaren azalpenik ematen
- Bigarren inkesta: LE2 barruan arlo honi buruz informazio gutxi dutela eta Legazpiren egoera arlo honetan ere ez dutela ezagutzen aipatzen da. LE3 barruan enpresa txiki eta ertainei laguntza eskainiko dien aholkularitza zerbitzu edo baliabideen beharra nabari da. Ikerketa eta berrikuntza sustatzeko, bai produktuan baita metodologia, antolaketa eta kudeaketan ere. LE4 barruan Legazpiko hainbat auzoen egoera ez dela ona eta egoera aztertu beharko litzatekeela aipatzen da baita auzoetako mugikortasun azterketa bat ere. LE5 barruan beste herrietan egin dena ezagutzea aipatzen da. Proiektuei buruz zera proposatzen dute:



- ✓ LE2: Egoeraren diagnostiko bat egitea
- ✓ LE3: Enpresa hazitegi bat sortzea, enplegua sortuko duena, garapen ekonomiko eta profesionala bultzatuko duena eta ekintzaile-tasuna sustatuko duena. Enpresa ideia berriak garatzeko gune ba sortzea. ETE eta merkatarienezako formazioa
- ✓ LE4: Mugikortasuna hobetzeko ekintzak: autobus urbano bat auzoetatik kalera, igogailuak eta auzoetako azpiegiturak oro har hobetzea.
- ✓ LE5: Praktika onak konpartitzeko sistema baten ezarpena
- Hirugarren inkesta: LE3 eta LE 4 aipatzen dira, lan eta bizi baldintzak hobetu eta bermatzearen alde jendea Legazpin gera dadin. Proiektuak hauek dira:
 - ✓ Garraio publiko hobe (bai trenez eta bai autobusez)
 - ✓ Enpresak erakarri eta bertakoak bultzatu (gauzak erostera eta kontratatzea kanpora ez joatea)
 - ✓ Etxebizitzak alokatzeko aukera handiagoa eta Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago (baina eraikuntza sostengarri bat gauzatuz)
 - ✓ Ondare kultural eta naturala ezagutarazi eta babestu

Aukera desberdinen artean lan taldeak hurrengo bi proiektuak aukeratu ditu:

- **Arte eta Kultura sektoreak sustatzea**, herriarentzako aberastasuna sortzeko aukerak bilatuaz. Zehazki aberastasun ekonomikoa sortuko dituen gaitasunak hausnartzea.
- **Herriaren imajina** edo irudia

HARTUTAKO PROPOSAMENAK

Konpromisoa	Pertsona	Data
OP-ACT proiektuko liderrari aukeratutako lan esparruen berri ematea	Ainhoa	2011 Urtarrila bukaera